

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

**Aguraingo udalerriko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkar-  
teek 2023-2024 ikasturtean egingo dituzten eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko laguntzen  
deialdiaren oinarriak**

BDNS(Identif.): 745331.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a arti-  
kuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirula-  
guntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/745331>).

Hezkuntza sistemaren barruan parte hartzea eta berrikuntzak egitea sustatzen duen politika  
gara dadin, esku hartzen duten sektore guztiek garrantzi nabarmena izan behar dute; azpimarra-  
tzekoak dira, batez ere, legerian ezarritako bideetatik ikasleen gurasoen elkarrekin egiteko  
ekarpenak.

Jakina da ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarrekin  
zailtasun ekonomikoak dituztela, eta hori, zenbaitetan, ikasleen gurasoen baliabide ekonomiko  
mugatuen ondorio dela. Zentzuzkoa dirudi, beraz, laguntza emateak, aurrekontu mugen barruan,  
bai eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko, bai jarduera horietarako azpiegiturak erabili ahal  
izateko. Azaldutakoaren arabera, bidezkoa da laguntzen deialdia egitea horretarako ezarritako  
aurrekontu zuzkiduraren kargura.

#### XEDATZEN DUT

#### I. KAPITULUA. DEIALDIAREN XEDEA

##### 1. artikulua

Laguntzen deialdia egitea 2023-2024 ikasturterako, Aguraingo udalerriko ikastetxe publiko-  
tako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarrekin antolatzen dituzten eskolaz kanpoko  
jarduerak eta horien ondoriozko gastuak finantzatzeko. Gehienez 6.000,00 euroko laguntzak izango  
dira (326.481.015 aurrekontu partida).

Eskolaz kanpoko jardueratzat joko dira ikastetxeek euren ohiko jardueran ezin eskaini di-  
tuztenak.

Honako hauek deialdi honetatik kanpo geratuko dira berariaz:

Irakaskuntza arautuko curriculum irakasgaien tratamendu paraleloa egiten duten jarduerak.

Aguraingo Euskararen Eguneko eta eskola kiroleko programako egitarauetan dauden ekintza  
guztiak, egitarau horiek toki erakundearen, Arabako Foru Aldundiaren eta ikastetxeen arteko tra-  
tamendua jasoko baitute.

#### II. KAPITULUA. BALDINTZAK

##### 2. artikulua

1.) Ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarrekin eskatu  
ahal izango dituzte laguntza hauek, zuzenbidearen arabera eratuta badaude, indarreko araudiari  
lotzen zaizkien xedek badituzte, eta dagokien erregistroan inskribatuta badaude, ikasleen gura-  
soen irakaskuntza elkarrekin gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen gurasoen elkarrekin arau-  
tzen dituen otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuak 60. eta 110. artikuluetan ezartzen duen moduan  
(1987ko apirilaren 7ko EHAA).

2.) Ezarritakoa betetzeko, deialdi honetara bildu nahi duten elkarteek dagokien elkarteen erregistroan inskribatuta egon beharko dute eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

3.) Ez da onartuko ikastetxearen izenean edo ikasle taldeen izenean aurkeztutako eskaerarik, ez baldin bada kasuan kasuko ikastetxeko ikasleen gurasoen elkarteen esparrukoa, guraso elkarteak baitira deialdi honetako onuradun bakarrak, hura gauzatu edota eskatu bitartean.

### III. KAPITULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEA

#### 3. artikulua

Eskaera, ikasleen gurasoen elkarteko lehendakariak sinatuta eta Aguraingo Udaleko alkateari zuzenduta, udal bulegoetan aurkeztu behar da, Aguraingo Zapatari kaleko 15. zenbakian. Deialdi honen I. eranskinean dagoen eredia erabili behar da eskaera egiteko:

a) I. eranskineko eredia, behar bezala beteta.

b) Elkarteen erregistroan inskribatu izanaren frogagiria.

c) 2023-2024 ikasturtean elkarteak zenbat kide dituen guztira.

d) 2022-2023 ikasturtean guztira zenbat ikasle egon diren ikastetxean matrikulatuta, eta 2023-2024 ikasturtean guztira zenbat ikasle dauden ikastetxean aurrematrikulatuta edo matrikulatuta.

e) Eskola Kontseiluko idazkariak egindako akta. Bertan ziurtatuko da kontseilu horrek onetsi egin duela ikasleen gurasoen elkarteko lehendakariak aurkeztutako eskaera, 2023-2024 ikasturterako proposatutako eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko.

f) Jardueren zerrenda, eta jarduerak finantzatzeko aurrekontua, behar bezala banakatuta.

g) Zerbitzu teknikoek edo organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko dute zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela, bai eta nortasun agiri nazionala/identifikazio fiskaleko zenbakia ere. Hala ere, erakunde eskatzaileak berariaz egin diezaioke uko egiaztapen horri, eta, hala egiten badu, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du. Gainera, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. apartatua xedatutakoarekin, dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak baimena ematea Aguraingo Udalari zuzenean eskura dezan beste edozein administrazio publikok egindako dokumentazio guztia.

h) Erakunde eskatzaileak administrazio honetan edo beste edozein administrazio publikotan aurkeztu badu eskatutako dokumentazioa eta berariaz adierazten badu ez dela aldaketarik egin, ez du aurkeztu beharko dokumentazio hori, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua 3. apartatua xedatutakoarekin. Hala ere, dokumentu horiek noiz eta zer administrazio organotan aurkeztu dituen adierazi beharko du. Eskaera aurkezteak berekin dakar baimena ematea organo kudeatzaileari dokumentazio hori eskura dezan, baina horrek ez du esan nahi baimena berariaz ukatu ezin denik. Kasu horretan, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

#### 4. artikulua

Eskaerak aurkezteko hamabost egun baliagarriko epea egongo da, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta

### IV. KAPITULUA. BALIOESPEN BATZORDEA ETA HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

#### 5. artikulua

1.) Kultura batzordeak balioespen batzorde tekniko bat eratuko du, laguntzak adjudikatzeko proposamena egin diezaion tokiko gobernu batzarrari. Balioespen batzorde tekniko horretan honako hauek izango dira:

- Udalaren kirol teknikaria.
- Gizarte eta kultura teknikaria.

2.) Eskaerak baloratzeko eta dirulaguntzen zenbatekoa erabakitzeko irizpideak honako faktore hauetan oinarrituko dira (gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira):

a) Ikastetxeak deialdiaren xede den ikasturtean zenbat ikasle dituen baloratuko da, eta balorazio bikoitza emango zaie funts publikoekin bakarrik finantzatzen diren ikastetxeei (5 puntu).

b) Aurkeztutako egitarauaren koherentzia eta udalerriko kultura eta kirol jarduerekin duen lotura baloratuko dira (5 puntu).

c) Ikastetxe eskatzaileak barnetegiak egiten baditu, 600,00 euroko oinarritzko tartea ezarriko da.

3.) Dirulaguntzaren xede diren eskolaz kanpoko jardueren egitarau osoa euskara hutsean garatu beharko da.

## V. KAPITULUA. EBAZPENA

### 6. artikulua

Tokiko gobernu batzarrak ebatziko du deialdi hau.

### 7. artikulua

Deialdi honen ebazpena Aguraingo udalerriko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarte eskatzaileei jakinaraziko zaie ahalik eta lasterren. Ezarritako epean ebazpena eman eta jakinarazten ez bada, eskaerak administrazio isiltasunaren bidez ezesztatuko dira.

## VI. KAPITULUA. LAGUNTZAK JASOTZEA ETA JUSTIFIKATZEA

### 8. artikulua

1.) Laguntzak epe bakarrean ordainduko dira. Aldez aurretik, dirulaguntza kobratu behar duen elkarteak agiri bidezko justifikazioa igorri beharko du, alegia, 2023-2024 ikasturterako dirulaguntzaren xede den egitarau osoari dagozkion jatorrizko fakturak aurkeztu beharko ditu.

2.) Justifikazio hori 2024ko ekainaren 14a baino lehen aurkeztu beharko da; agiri guztiak Aguraingo Udaleko erregistroan aurkeztu behar dira, eta honako hauek aurkeztu behar dira guztienez:

a) Egindako jardueren memoria zehatza, helburuak baloratu eta ebaluatzeko berariazko atal bat edukiko duena.

b) Memoria ekonomikoa. Diru sarreraren kapituluan, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako laguntzen bidezko diru sarrerak jaso beharko dira, bai eta elkarteko kideen kuotak ere. Legezko betekizun hauek bete behar dituzten fakturak erantsi behar dira:

- Jatorrizkoak izan behar dute, edo Aguraingo Udaleko Idazkaritzan konpultsatutako kopia.
- Jarduerarako emandako laguntzaren epearen barruko data eduki behar dute.
- Hartzailearen nortasun agiri nazionalaren zenbakia edo lizentzia fiskalaren zenbakia izan behar dute.
- Enpresa hornitzailearen zigilua edo sinadura eduki behar dute.
- Aurkeztutako aurrekontuarekin bat etorri behar dute.

c) Jarduera dela eta sortutako agiri inprimatu guztien memoria, non egiaztatu behar baita Aguraingo Udalaren laguntzaren berariazko aipamena egin dela.

d) Eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten egiaztagirak.

e) Dirulaguntza eman zen helburuetarako erabili dela dioen zinpeko adierazpena.

f) Helburu bererako eskatutako eta jasotako dirulaguntzen zinpeko adierazpena.

**9. artikulua**

1.) Deialdi honetan lortzen den laguntza bateragarria izango da beste administrazio publiko edo pribatu batzuen bidez lor litekeen beste edozeinekin, betiere bien baturak ez badu gainditzen dirulaguntza honen xede den gastuaren ehuneko 100. Gainditzen badu, deialdi honetako dirulaguntza murriztu egingo da, gaidikin horren zenbatekoa kenduz.

2.) Deialdi honetako dirulaguntza jasotzen duten elkarteek xede bererako beste edozein dirulaguntza edo laguntza jasotzen badute, horren berri eman beharko diote Aguraingo Udalari.

3.) Gainera, elkarte onuradunek Aguraingo Udalari egiaztapen jarduketak egitea erraztu beharko diote.

4.) Elkarte onuradunek onartu egin beharko dute ematen zaien dirulaguntza. Hala, dirulaguntza eman zaiela jakinarazi ondoko hamabost eguneko epean berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

**10. artikulua**

1.) Inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean, bidezkoa izango da jasotako laguntzak itzularaztea, aplikatu beharreko legezko interesekin batera:

a) Ikasleen gurasoen elkarteak laguntza xede baterako eskatu eta beste xede baterako erabiltzea.

b) Deialdi honetan xedatutakoa ez betetzea, edozein modutan.

c) Aguraingo Udalaren aurrekontuen kargurako dirulaguntzen onuradunek egungo lege araudian ezartzen zaizkien betebeharretako baten bat ez betetzea.

d) Sortzen diren material inprimatu guztietan Aguraingo Udalaren laguntza berariaz ez aipatzea.

**I. ERANSKINA. ESKAERA**

..... jauna/andrea, ..... ikastetxeko ikasleen gurasoen elkarteko lehendakaria. Elkartearen izena: ..... Elkartearen legezko helbidea: ....., Agurain. Elkarteen erregistroan egindako inskripzioaren data: ..... Inskripzio zenbakia: .....

Harremanetarako telefonoa: .....

Harremanetarako helbide elektronikoa: .....

**ADIERAZTEN DUT**

Gure elkartearen zuzendaritza batzordeak erabaki duena betez, eta Aguraingo udalerriko ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarreek 2023-2024 ikasturtean egingo dituzten eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko laguntzak emateko Aguraingo Udalak egin duen deialdiaren arabera.

**ESKATZEN DUT**

Deialdi horretako laguntza emateko goian aipatutako elkarteari, proiektatu diren xedeak lortu ahal izan daitezten. Honako agiri hauek eransten ditut:

- Elkarteen erregistroan inskribatu izanaren frogagiria.
- 2022-2023 ikasturtean elkarreak zenbat kide izan dituen guztira.
- 2022-2023 ikasturtean guztira zenbat ikasle egon diren ikastetxean matrikulatuta, eta 2023-2024 ikasturtean guztira zenbat ikasle dauden ikastetxean aurrematrikulatuta edo matrikulatuta.
- Eskola Kontseiluko idazkariak egindako akta. Bertan ziurtatzen da kontseilu horrek onetsi egin duela ikasleen gurasoen elkarteko lehendakariak aurkeztutako eskaera, 2023-2024 ikasturterako proposatutako eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko.
- Jardueren egitaraua, eta jarduerak finantzatzeko aurrekontua, behar bezala banakatuta.

Agurain, 2024ko urtarrilaren 26a

*Alkatea*  
**RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR**